

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko apirilaren 2a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lesaka • Egurrean landutako eskultura eta margoekin erakusketa osatu du Adrian Labadiek.

Iosu Osteriz • «Historiak ez dio justiziarik egin EAE alderdiari».

Kikilirioaren zain jolasean



• KULKI

Lizarran kokatua dagoen Kulki taldeak kultura eta kirola uztartzen ditu asmatu edo berreskuratu dituen jolasen bidez. Kikilirioaren deia zain, herri kirolek, eta ezagunak edo ahaztuak zeuden jolasek osatzen duten proiektuan umeei jostaka ibili ez ezik ikasi ere egiten omen dute. Gainera, kate hautsi bat berreskuratzen saiatu dira, gure aurreko belaunaldiak egiten zituzten hainbat joko plazaratuz.

Lesaka •

Labadieren eskua

Egurrean landutako eskultura eta margoekin erakusketa osatu du Adrian Labadie

Frantzian jaioa bada ere, aspaldidanik bizi da Etxalarren Adrian Labadie. Egurra ardatz duen erakusketa zabaldu du aste honetan Lesakako Arranon, eta apirilaren 11 arte egonen da ikusgai.

ANIMALIAK ETA EMAKUMEAK dira inspirazio iturri Adrian Labadie artistarentzat, edo behintzat hala dirudi lehen begi kolpean. Artelan guztiek egurra dute oinarri, eta animaliek protagonismo berezia hartzen dute. Ohiko egur lanketa baino gehiago, erabat gauza berritzailea da Labadien egiten duena. Sugeak, otsoak, pinguinoak, txakurrak... Guztiak egurrean landuak. Osagai berri bat erantsi die guztiei, orain arte guti erabili izan duena bere lanetan: kolorea. Oro har animalia guztiak artikulatuak daude, eta ez dira eskultura hutsak, alegia, mugi daitezke, betiere giza indarrez. Manibelak, kateak eta bolante ttikien bidez mugimendu jakin batzuk egiten dituzte Labadien artelanek.

Eskulturen artean emakume gorputza duen otsoa, bu-



Erakusketan Labadien azken lanak bisita daitezke.

• MIKEL SAIZ

lar handiak dituen pinguinoa, suge hori-beltzak... nabarmentzen dira. Etxerako altzariak ere tartekatzen dira Adrian Labadien lanen artean. Baina altzariotan ere animaliak ageri dira, eta inondik ere ez dira ohiko altzariak.

Egurrezko eskulturak ez ezik, bertzelako arte lanak ere bildu ditu Etxalarren finkatutako artistak. Margo bitxi ugari bildu ditu, guztiak egurraren gainean margotuak, eta kolore aski bizi eta bereziekin. Horietako

gehienetan animaliak dira protagonistak, eta bereziki txakurrak eta zaldiak.

Erakusketan hainbertze toki hartzen ez duen arren, Labadien egindako zenbait komiki ere tartekatzen dira. Kaxoiak, ispiluak, komodak... Gisa horretako lan tikiak ere egiten ditu etxalartarrak. Labadien egindako zenbait komiki ere tartekatzen dira, zuri-beltzean eginak. Horrek guztiak erakusten du Labadie diziplina ugaritako artista dela.

Esku berezia

Ikusmira aski berezia eskaintzen du Labadien bere lanetan. Ikusleak ez ditu ohiko egur lanak aurkitzen. Erabat berritzailea da Labadien ikuspegia. Objektuak ez dira diren bezalakoak agertzen, baina lehen begi kolpean zer islatzen duen argi asko uzten du. Gauza berezi eta desberdinak eskaintzen ditu, erabat ori-jinalak.

Ez du lehenbiziko erakusketa Labadien, lehenagotik

ere bertzelako erakusketak antolatu izan baititu. Oraingoan, hala ere, azken lanak bildu ditu, eta pinturak eskulturei leku franko hartu die.

Erakusketa egunero egonen da zabalik, apirilaren 11 bitarte, astelehenetan salbu. Lesakako Arrano Elkartearen aretoan paratu dute, eta 16:30etatik Arrano ostalua itxi bitartean dago ikusgai.

→ Jon Abril

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Nola arraina urari hala Madrilo agintariak eta haien mendekoak gerrari ere. Ez dirudi besterik nahi dutenik. Bake prozesu baten eskaintza jartzen zaie eskutetan, eta harrokeria osoz betikoari eusten diote. Zapalkuntzaren aukera poliziala, beren betiko leloarekin segitzea da haien erantzun bakarra. Horretaraino iristen da beren borondate on guztia.

Bake prozesuaren hasmentarekin batera sorturiko Lizarra-Garazi Akordioak bide ilusionagarria bezain zabala ireki du. Atzean utzi nahi dira sistrak eta arantzak. Aurrera begira jarri dira zenbait alderdi, sindikatu eta elkarte. Herri hau maite dutenak konponketa nahi dute.

Arrainak urari

Itxura guztien arabera, horrenbeste maite ez dutenak eta batere maite ez dutenak hobeki esanda, nahiago dute haxe aspaldi honetan dagoen bezalaxe jarraitzea. Odol artean igeri egitea omen dute gustuko. Ze arrai inporta zaie haien menpeko eta besteen heriotzak. Badirudi etekinak hortik ateratzen dakitela eta ez besterik.

Sei hilabete joan dira su-etena aldarrikatu zenetik. Estatuak izan du aski denbora benetako aurrerapauso bat edo beste egiteko.

Irletatik Penintsulara ekarritako preso gutxi batzuen aldaketa izan da guztia. Gainerakoak beti bezala segitzen du. Bereari eusten dio kale-borroka kontrako erantzunean, eta estatuak kale

borroka aitzakiatzat hartzen du aurrera ez egiteko. Zirkuluak osaturik segitzen du, eta giro horretan zaila egiten du mugimendu esanguratsu eta aurrerakoiak bideratzea. Etsaiek laino eta ke artean ikusi nahi gaituzte betiere. Herri hontako gehien-goak, ordea, bestelako apustua egin du. Bake eta justizi nahiak tinko finkaturik daude, eta gure herriaren nortasuna onbidetik eramatea erabaki dutenen erronkak oinarri sendoak ditu.

Une itxaropentsu hontatik ezin dute berriz ere garaile atera Euskal Herria gorrotatzen dutenak. Gutxienez ez dut hori sinistu nahi.

Araitz •

Hastera doa San Migel goiaingeruaren bidaia

Aralarko santutegitik abiatu eta Nafarroan barrena ibiliko da

Aste Santua bukatu orduko ekiten dio San Migel goiaingeruak bideari Nafarroan barrena. Baraibarren hasi eta Arakil-Uharten bukatuko da txangoa; lehen geldilunea, berriz, Araitz Ballarakoa izanen da, ohi bezala.



Aralarko San Miguelen segizioa.
• ARTXIBOKOA

ZEHAKI EZIN DA JAKIN SAN Migel goiaingeruak noiz bisitatu zituen lehenengoz Nafarroako hainbat herri. Jakin badakigu, ordea, Erdi Aroan ere egiten zirela bisitok. Garai hartan, gaixo eta eri ugari joaten ziren Aralarra, San Migelen santutegiraino. Horregatik otu zitzairen santutegikoei beharbada aproposagoa litzatekeela goiaingerua Iruñera jaistea, eriak Aralarra igo beharrean.

Orduz geroztik, ibilbidea bera da. Pazko igandean irte ten da goiaingerua santutegitik, eta Baraibarreraino joan

ohi da. Horixe izaten da ibilaldiaren hasiera ofiziala. Lehen egunak, ordea, Araitzen ematen ditu. Astelehenean, goizez, Betelura joaten da, eta arratsalde, Arribe eta Intzara. Asteartean, Atallu, Azkarate, Uztegi eta Gaintza bisitatzeko. Ondoren, Larraunerako bidea hartzen du, eta Imotz eta Gulibarren egon ostean, lehenengo iganderako Arakil-Uhartera iristen da. Orduan, uharterek Oskia-

ko baselizaraino egiten duten bidean, lagun izaten dute goiaingerua. Horren ondotik, bigarren astea Iruñean ematen du, eta, gero, Erriberako bidea hartzen du. Hiru hilabete igaro arte ez da bukatuko txangoa.

Beti ibilbide bera

Ibilbidea beti bera da, eta bera da Araitzen bisitaren inguruan egiten den errituala ere. Herri guztietan, esaterako,

santuak alde egin orduko, gazta eta ogia banatzen da mezetara bildu direnen artean. Bien bitartean, goiaingerua eta hari lagunduz ibiltzen den apaiza herriko gaixoen etxeetara joaten dira. Segizioa, berriz, etxe jakin batera joan ohi da bazkaltzeko orduan, eta han igarotzen du gaua goiaingeruak. Zaindarien etxeak dira horiek. Kristau sinismenak dioenez, bisiton bidez lurak, abereak eta, batez ere, familiak bedeinkatzen ditu San Migelek urte osorako. Horregatik, meza aurreko prozesioaren ostean, lau aldeetara begira jartzen dira eliztarrak, eta alde bakoitzean otoitz bat egiten dute. Otoitz horretan Migel Azpiroz apaiza izan da gidari urteotan. Azken 40 urteotan hura da goiaingeruaren bidelaguna. Orain autoz egiten dute bidea, baina hori azken 26 urteotako kontua da, lehen mando gainean egiten baitzuten ibilbidea.

Aralarko erretore Inozentio Aierbek dioenez, «Pazko astean, oporrak izanik, bisitari ugari biltzen da santutegira, eta ezusteko ederra hartzen dute santua aurkitzen ez dutenean».

→ Urko Aristi

herri aldizkariak

Asier Legarda

Aldizkari bat baino gehiago

250. alea atera du **Ttipi-ttapa** astekarriak, eta, hori dela eta, aldizkariaren historia eta proiektuaren nondik norakoak laburbildu dituzte haren ardurdunek. Aldizkari bat baino zerbait gehiago izenburuaren pean. «Aldizkari honek, orain dela hemeretzi urte sortu zenetik, sekulako ibilbidea egina du dagoneko. Urratsik handiena, halere, 1990ean eman zuen. Ordu arte hiru hilabetetik behin argitaratzen zen, eta 500 edo 600 ale bertzerik ez ziren saltzen. 1990etik aitzinera, ordea, planteamendu arras berriekin hasiko da ibil-

tzen, eta planteamendu hartatik sortuko da gaur egungo aldizkariaren bizkarrezurra. Hastekoz, bi astetik behin ateri eta bakar-bakarrik harpidetza bitartez zabalduko da. Helburua garbia da: etxe guztietara ailegatzea».

«Azken bi urteotan nobedaderik handiena barne antolaketan gauzatu da. Proiektu, jarduera eta zerbitzu berriei egoki erantzuteko erreminta hobeak behar direnez, Kultur Elkartearen lekuko Fundazioak hartu du. **Ttipi-ttapa** Fundazioak martxan jarri zuen lehenbiziko proiektua da **Ttipi Txartela**. Aldizka-

riaz gain, komunikabide modernoek ere martxan jarri ditu euskararen eta herritarren alde».

Izan ere, paperean ez ezik, Interneten eta telebistan ere ikus daiteke, egun, **Ttipi-ttapa**. Telebistari dagokionez, azken hilabeteotako diru arazoak konponetzen ari dira: «Sei milioitara ailegatzeko milioi bat falta da. Hortaz, kanpainak segituko du helburua lortu arte». Herri ttikienetan laguntza gehiago bildu da Bera eta Lesakan baino, eta, horregatik, hemendik aitzinera bi herri horietan zentratuko dute ahalegina.



**urdaire
aren
mintzoa**

Xabier Larraburu

Iritzi Liderra

Elkarritik nator. Iritzi Liderra bezala joan naiz eta Futbolin Jokalari bezala nator. Orain ardo botila ireki eta nire arima gogortzen eta sendatzen ari naiz. Hemendik gutxira modu alai batean kantatzeko gai izango naiz berriro ere, seguro. Hemendik gutxira. Bitartean kontatuko dizuet zertan izan den kontua. Atzo jakin nuenean Elkarrikoek 30.000 iritzi liderrei beraiek prestaturiko txostena igorri behar zietela kezkatu nintzen. Elkarriko kideen diruaz ari naiz: zigilu bakoitza 20 pezeta-koa bada, txostenaren banaketa lanetan milioi erdi baino gehiago gastatuko zutela kalkulatzea ez zen zaila izan. Beraz, eta dagokidan erresponsabilitateaz, nire txostena Elkarriren egoitzan nik neuk hartuko nuela erabaki eta gaur goizean harantz abiatu naiz. Iritzi liderak garen aldetik eredu garriak izan behar dugula hausnarketarekin egin dut egoitzarainoko bidea. Atea ireki eta mahai baten atzean zegoen neskak irribarre bat erakutsi dit: «Hola, egunon». Zertara joan naizen azaldu diot. Nire izena galdetu dit. Izena entzun eta errepikatuarazi egin dit: «Barkatu?». Xabier, esan diot berriz ere, Xabier Larraburu. Kezkatu aurpegia jarri du ondoren, eta ordenagailuan nire izena sartu du. Egia esan behar badizuet hau ere eredu garria iruditu zait. Bai horixe. Askotan izen haundiko pertsonen aurrean itsutu eta morroien antzera dihardugu. Zer edo zer eskatu ezker berehalaxe ematen diegu eta hori ez da arrazoizkoa. Mitifikazio guztien kontra nago ni. Eredugarria iruditu zait, beraz, beste edozein izen entzun balu bezala, eta badaezpada ere, ordenagailuan miaztearena. Erantzunak, aldiz, zur eta lur utzi nau: «Barkatu, ejem, baina Nafarroako 3.600 iritzi liderren zerrendan ez dago inongo Xabier Larrabururik...». Kontxo. «...eta lidergaien zerrenda osatzen duten gainontzeko 12.000-etan ezta ere... zure izena futbolin jokalarien taldean sartuta dago. 8.000 lagun zarete». Futbolin jokalaria. Beste ardo tragoxka bat hartu dut. Hamabigarrena edo. Katuari begira «kantuz jaio naiz eta...» abesten hasi naiz. Dagoeneko sendatuta nago.

Kikilirioaren deiarene zain

Kulki taldeak kultura eta kirola uztartzen ditu asmatu edo berreskuratu dituen jolasen bidez

Lizarran ari da Kulki taldea, kultura eta kirola uztartuz haurren mesederako. Proiektuaren eta jardueraren muina herri kirolak eta jolasak dira -zenbait jolas ezagun eta ahanziago dauden beste batzuk-. Eta umeek, jostetan ibili ez ezik, ikasi egiten omen dute. Gainera, kate hautsi bat berreskuratzen salatu dira, gure aurreko belaunaldien hainbat joko plazaratuz.

Jolasa eta jokoa unibertsalak dira, kulturen eta garalaren arabera izen eta izan bat edo bestea hartzen duten arren. Adibidez, gaztelaraz Tres en raya eta frantsesez Puissance trois deritzen jokoak (200 urte Kristo aurretik ezaguna omen zen mundu osoan) Euskal Herrian Artzai-jokoa zuen izena, Bilboko Museo Etnografikoan aurki daitekeen jostailuari erreparatzen bazaio. Hainbat joko hasteko, kikilirio edo horren aldaeraren bat da Euskal Herriko herri frankotan erabiltzen den hitza, eta Kulki taldeak mintzo hori esanez osatu duten jolasen mundura gonbidatu nahi du edonor.

Kulki taldea 1997an sortu zen Lizarran. Hitzak berak dioten moduan, kultura eta kirola uztartu nahi ditu, betiere kirola jolastat hartuz. Luisfer Etxeberria goizuetarrak eta Asier Lafuente gasteiztarrak osatu dute taldea.


Nafarroako Gobernuak, Akitaniako Eskualdeko Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak lagundutako proiektu batekin abiatu zuten Kulki, Heziketa Fisikoko Ikasketak bukatu bezain laster. Geroztik, ibili dira Euskal Herriko hamahiru herriko 29 eskolatan; hasi Tuteratik, eta Donapaleuraino, besteak beste. Baina irakaskuntzan ez ezik, herriko festetan eta bestelako jaie-tan ere erakutsi dute jostetan ibiltzeko xarma. Herri eleantiz batean egonik, gehienbat euskaraz aritzen badira ere, gaztelania eta frantsesa ere erabiltzen dute beren jardunean.

Kiroltako esperientziak eta kulturazale-tasunak bultzaturik sortu zuten Kulki. Etxeberriak dio haurrekin egiten dutena kirola dela baina kulturatik ere asko duela.

Jasoa ezagutarazi eta joko zaharrak berreskuratu

Kultura eta kirola uztartzen ditu Kulkik, baina, beti ere, «bilatzen duguna da jardueraren eta jokoa dibertigarriak izatea haurrei eskaintzeko». Joko asko idatziaz daude eta bikoteak jasota dagoena eskaintzen du, bai eskolan, bai plazan, tokatzen den tokian. Dena dela, bilduta egon arren joko batek aldaera asko izan ditzake eta hori bildu izan dute bi urteotan. «Herri batera joaten zarela esaten dizute, 'guk hau horrela egiten genuen'. Batzuetan gerta daiteke jasota egotea baina beste batzuetan ez dago jasoa ere, baina jostagarria bada aurrera eta eskaintzen dugu. Bildua dago baina hori ere zabaldu behar da», azaldu du Etxeberriak, eta Portugaleten gertatutakoa gogoratu du. Hain hedatua dagoen kirrinkaren jokoa, (burnizko guplari mako batekin eraginez lasterketak egitea), neskek makoa kanpotik sartuta ibiltzen dute eta mutikoez barrendik sartuta.

Kulkiren eskaintza ♦



1. Makil tira
2. Arpana
3. Pala
4. Diaboloa
5. Ziba
6. Goitibehera
7. Sorginke
8. Gupila
9. Laia
10. toka
11. Baloi ehiztaria
12. Zamaizain
13. Birla
14. Zakulariak
15. Pasaka
16. Zankook
17. Kirrinka
18. Igela
19. Buruhandia
20. Lasto altxari
21. Orga jokoa
22. Txapela
23. Ingudea

Jokoopremia ez da aldatu


Gaur egungo haurrekin ahaztu egin zaiela esaten da maiz, dela telebistaren aurrean ordu asko igaratu dituztelako, dela teknologia berriek harrapatu dituztelako eta etxeetako ohiturak aldatu direlako. Kulkikoak ez dira iritzi berekoak, eta umeak beti bezain jostalariak diote. «Zer eskaintzen diegun, horixe da kokka. Eskaini umeari ikasteko modua eta ez dute inoren beharrik 'ez egin hori edo hura' esateko. Moldatzen dira», dio. Bestalde, gaineratu du telebistaren aurrean pasatzen den orduak ez direla bakarrik telebistaren erru. «Telebista piztu eta itzali egiten eta erantzukizuna ondoan daudenena da», gaineratu du.

Era berean, egun ikastetan edo kalean dagoen arkitektura eskasak jolasteko moduan duen eraginaz azaldu da. «Eskoletako atariak porlan hutsa dira, ez dago zuhaitzik, belarrik... Batez jolastoki politak, baina gutxi. Bi saski eta bi ate jarri eta marra batzuk egin ditugu», kexatu da Etxeberria. Hortaz, eurek proposatutako joko asko ezin dira egiteko, laiek... «Arkitekturak markatzen du eta ezin daiteke jostaka ibili. Hasean egiten maiz horrelako eraikinekin. Egin beharko lirake inguru aberatsak, Don Garaziko ikastola edo Miarrizko Itas Argi ikastolaren antzekoak. Estalpea, laia, belarra eta gainbeherak dituzte, umeak harat eta honat ibil daitezke», bukatu du.



Jokanoko plazan tokan ari da neskatoa. (ezkerrean) Kirrinka jolasa oso hedatua dago Euskal Herrian.

• KULKI



Zerotik batera pasatzea

Orain arte hezkuntza egituratik at, herri adiskideen asmoa gustaturik parekatuta dauden herrietan egonak dira: Tuterako Maule; Donapaleu-Zangoza; Lizarra-Donibane Garazi; Hazparne-Azpetia; Senpere-Altsasu; Baiona-Iruñea; Getaria-Getari.

Laurehun haur bildu izan dituzte euren muntaietan, hiru urtetik hamalau urte bitartekoak, hain zuzen. Etxeberriak dioenez, «ikusgarria» omen da. «Alditik aldira gusturago gabilta, plazan zer arrakasta duen ikusten dugulako. Plazan egon egin behar da ikusteko nola dabilzten umeak beren aierera. Herri kirolak toki askotan ez daude modan eta oso ongi pasatzen dute horiek eginaz. Hemen dauden jokoek xarma dute», dio pozik.

Baina beren helburua ez da bakarrik haurrak gustura egotea, Kulkik ikas dezaten ere nahi du. «Umeak, jostazearekin batera ikasi egiten du. Ohituta gaude haurrei jostaka ibiltzea gustatzen zaiela esaten baina ikusten dutenean ikasten doazela gero eta gehiago gustatzen zaie. Orduan ikasi eta jokatu egiten dute», dio Kulkiko partaideak.

«Etortzen da hamalau urteko neska edo mutila plazara eta ikasi du kirrinkan ibiltzen, bere hankak egon dira metro eta erdi gotti lastoarekin salto egiten, ezagutu ditu punteriak joko batzuk: boloak, toka; laian ibili eta ikasita joanen da, zerratuta joango da, arpanaz moztuta joango da eta lehen-dabizko esperientzia hori edukitzea da zerotik batera pasatzea», azaldu du. Etxeberriaren ustez zeroa da deusez eta batetik bira ez dago zerotik batera dagoen saltoa, eta euren proposamen salto hori lortu nahi dute.

Zerotik batera pasatzeko hurrengo ahaiegina Irurita herrian egiten dute datorren asteartean, eskola atarian, 16:00etatik 18:00ak arte.

→ Irene Arrizurieta

«Zaharrak ibili dira baina aitonetatik ilobetara ez da transmisioa izan. Orain plazara edozein hurbiltzen denez, aitonak askotan aritzen dira gantxoak non jarri behar duten esaten», gaineratu du. Beste joko batzuetan ez omen zaie horrelakorik gertatzen, makila pasa proposatzen dutenean adibidez. «Joandako zer bait da eta zuk planteatu behar duzu berritikan. Pasatu behar izaten da makilaren azpitik buelta emanez alditik aldira, eta baldintza da bakarrik bi sustengu egon behar dutela, oinak lurrian eta eskuak makilan. Ukitzen baduzu belaunekin lurrian ez du balio», argitu du goizuetarrak.

Nolanahi ere, gehiena argitalpenen bidez lortu dute eta jolasak *Juegos Infantiles en Vasconia* Etnikerrek argitaratutako liburuan oinarriturik egiten dute.

Baina jolasari kirola gaineratu diote Kulkikoak, eta haurrek herri kirola egiten dute. «Jokoak kirola dira, beste gauza bat da gero oso aratuak egotea eta lehiaketa bihurtu izana. Hainbat jokoek ez daukate horrelakorik. Herri kirola dibertigarria baldin bada erabiltzen dugu», dio irakasleak. Horrela hainbat joko egiteko aukera du haurrak: herri kirolak (ingudea, lasto altxaketa, trontza...); herri jokoak: laiak, toka, kirrinka; ohikoak: perropepe edota sorginke; zozketako formulak: lastoa edo urre-zilarra. Adin guztietako umeak egiteko jolas-kirolak dira eta, aldi berean, lanbide bat edo aurrekoen jostatzeak era gogoratzen dutenak. «Adibidez ingudeak egiten duen soinuarekin umeari gustatzen zaio abailan aritzea joka eta joka. Kirola da, gogorarazten dizu lanbide bat eta badu hemen garatutako joko baten mamia», azpimarratu du Etxeberriak.

Jokoak egon asko dauden arren, Kulkikoek hamabosten bat landu dituzte. Hala ere, tokiaren arabera gehiago edo gutxiago proposatu dute. «Plaza batera joaten bagara hamabosten bat joko eskaintzen ditugu. Eskolan gertatzen badira jokoak ematen du aukera taldeak egiteko, eta sartzen ditugu harreman jokoak: sorginke edo katean ibiltzea, perropepe bi lagunek taldea harra-patzeko saioa», gaineratu du.



Luisfer Etxeberria:

«Umeak, jostatzearekin batera ikasi egiten du. Ohituta gaude haurrei jostaka ibiltzea gustatzen zaiela esaten, baina ikusten dutenean ikasten doazela gero eta gehiago gustatzen zaie. Orduan ikasi eta jokatu egiten dute».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Zuberoako bedatse loraduna III

Gauza jakina da ttipiena dela Xiberua, eta guztiarekin ere, zeinen ugariak euskal letren unibertsoan zuberotarrek hai-zatu loreak! Udaberriko koloreak eta usainak gustagarri jada hasiak diren honetan, udan ez neguan lilia galtzen ez duten loreak bilduz hona hemen sorta pollita



PIKOXET APEZ BARKOKTA-
rrak Gure Herria-n abon-
do kolaborazio agertu zuen
1927-1932 urte bitartean.
1930.eko dugu Ziberuan dan-
tza, «Jinkuak daki zer lanak
tügün ihautiari buruz! Zon-
bait gizon gaztek lo güti egiten
die, eta amets hanitz kaskuan
erabiltzen (...) Gaiaz dantzari
zahar baten etxan, edo borda
zonbaitetan khandera xar ba-
ten argian ikhus beze zaha-
rrek eman dien dantza, ezta-
din gal». Jean Baptiste MAZE-
RIS Barkoxeko apezak hain-
bat lan Gure Herria-n: Bi
arraç, 1927.ean, Tzintzarro-
sak 1931.ean, Kaloka eta Pu-
püü 1932.ean eta Maska-
dak 1933.ean; azken honekin
Eskualtzaleen Biltzarreko le-
hen saria irabazi zuen. Ligina-
gako erretorea zen Dominique
BEHETIK 1927-1933 urte bi-
tarte honako lanak eskeini
zizkigun Gure Herria-n: Pello
español 1927.ean, Agosti eta
Pethi 1929.ean, Arthaldiak Es-
kual Herria eta Xemarti
1931.ean, Allan Ordoki-
doi 1932.ean, eta luzeagoa den
Eskual Herriko oihanak
1933.ean.

Jean ETXEGOREN hauza-
rra Mauleko erretorea izan
zen. Hiru lan argitara eman
zuen Gure Herria-n: Jondane
Phettri eta Pette Txakhu
1934.ean, Artzainak bor-
tian 1935.ean, eta Musde kü-
küllero depütattaren huntarzu-
na, 1950.ean: «Sortzez gisala,
Xiberutarrak bürü ahin dira,
txoriak beno sordei ez tie fun-
tsirik batere, ezin hetan khun-
ta büria zankhuak bezain
ahin dutielakoz. Manex delako
batek ez dutia deitzen «Ha-
mahiru untzatak tximinuak». Gaizo
pastetx, jeloskor, thipica
handia, ageri duzu ez dututzu-
la untza ezagützen».

Fabien HASTOI zenak Gure
Herria-n kolaboratu zuen
1935-1937 bitartean. R. OXI-
BAR apezak Gure Herria-n
Aziatik Uska Herrilat lanare-

kin estreina 1937.ean
hartuta, Mixel Garikoitz
Saintia liburua agertu
zuen Baionako
Darracq bai-
tan 1948.ean.
Jean Louis LI-
GUEIX Larraçe-
ko Ligetsian
jaio zen
1901.eko abenduaren 3an eta
Baxe-Nafarroako Akamarren
zendu zen 1935.ean. Liguei-
xen hainbat olerki Gure
Herria, Aitzina eta Eskualduna
aldizkarien orriotan atera zi-
ren: Petiri eta Pierre, Presone-
rak: gerla ondoko amets bat,
Hokiko eliza, Buneta eta Txapela,
Espus-espusen khantoria,
Lau sasü, etabar. Onain-
diak Mila Euskal Olerki Eder
bilduma potolean ekarri zigun
honen berri, halaz ere, Gilen
Eppherrerri zor diogu Liguei-
xen berririk zehatzena, Luis Li-
gueix koblakaria, Gure Herria-
n 1968.ean.

Thomas UTHURRI Atharra-
tzen sortu zen 1920.eko aben-
duaren 28an; Maulen batxi-
largoa ikasi ostean, teologia
ikasketak Okzitaniako Tolo-
san eta magisteritzakoak Akti-
zen burutu zituen; euskal-
tzain urgazlea, Gazte, Etchea
zein Herria aldizkarietan argi-
taratu zuen hainbat kolabora-
zio; Gure Herria-n agertu oste-
an, liburu gisa atera zuen
Baionan eta 1950.ean Un
grand souletin, le chanoine In-
chauspe lan ezaguna.

Jean LARRASKET Eskiulan
jaio zitzaigun 1885.ean; apez-
a; euskaltzain urgazlea 1928.ez
geroz; 1953.ean hila. Lhande-
rekin batera ondu Le poëte Pie-
rre Topet dit Etchahun et ses
oeuvres lan klasikoa Baionan
1946.ean agertzeaz aparte, are
klasikoagoak dirateke RIEV-en
1927-1939 bitartean agertu zi-
tuen zubereraren fonetikazko
ikerketak. Ildo honetatik ere
baditugu 1928.eko Action de
l'accent dans l'évolution des
consonnes étudiée dans le Bas-




que souletin, 1934.eko Le bas-
que souletin Nord-Orientale, eta
1939.eko Le basque de la Bas-
se-Soule Orientale, hirurak Pa-
risen agertuak. Asmo literario
haundirik gabe izan bazen ere,
gure gozagarrirako oso Beñat
Larrajako belhagilii testua
agertu zuen 1931.eko eta
1935.eko RIEV-en.

GILEN EPPHERRE Altxürü-
küko Etxeberrin jaio zen
1911.eko urriaren 19an eta
Baionan zendu zen 1974.eko
urriaren 17an. Lehengo ikas-
ketak Maulen eta Ustaritzen
burutu ondoren, Baionako
apezgaitegian sartu zen, teolo-
gia Okzitaniako Tolosan ikasi
zuela; 1936.ean apezte zuen.
Baionako Dionesiko idazkaria,
1949.ean ohorezko kalonje eta
1967.ean titulozko kalonje
izendatu zuten. Euskaltzain
oso, Lhandek libratu kaderan
eseri zen 1958.etik. Utzi zizki-
gun lanen artean, Katexima -
1941.ean-, Eltzako libria -
1943.ean-, Botzez eta biotzez -
1949.ean- edota Haurren le-
hen katexima -1955.ean- aipa
ditzakegu; Gure Herria-ko zu-
zendaria izan zen Saint-Pierre
hil zenetik; aldizkari honetan,
Etxahun, Lhande eta Ligueix
zuberotarren gainean idatzi zi-
tuenak nabarmentzekoak di-
ra. GREGOIRE EPPHERRE
Altxürükün ere sortua ge-
nuen, 1929.eko urriaren
22an, hortaz, Gilen baino gaz-
teago. Anaia bezala apezte ere,
hainbat tokitatik pasea zen ja-
da Mauleko ikastegian irakas-
le ihardun zuenerako. Maulen
zendu zen 1974.eko urriaren
bostean, anaia baino egun ba-
tzuk lehenago, beraz.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Himalaya burgesen desertsu

ELURRAK ZURIZ MOZORRO-
tu du lurra, eta berriz
nolako den oroibe-
rritu behar honek poz
ematen du, hemen bertan Leitza-
n, Goizuetan, edozein txokotan, bate-
re gorago nahirik gabe.

Himalayako elur hutsa, birjina-
goa izanen da noski, baina, hemen
ezta han, nola oroiberritu lezake gi-
zonak, elurpeko lurra? Karkulo gu-
ziak sufrimentu arriskutsu haundi
bakarrera bildu, eta poz haundi ba-
kar baten atzetik doanak, deus guti
oroiberritu lezake elurpean.

Helburu ttar bat aski baltu gizo-
nak, bere baitan bildu, eta hanka-
pean duen mundu osoa ignoratze-
ko. Hari batetik zintzilik daraman
goiasmo haundi batekin, nola oro-
iberritu lezake orduan gizonak
mundua, zortzi mila metro lodiko
elurpean?

Urteak dira, edo elurteak, sufri-
mentuak galerazi ziola gizonari lu-
rra ikusten. Gure Himalaya libu-
ruan ere, horregatik ez dago lurrik,
joandako «gu» hutsak datoz buel-
tan «gu» apaindu. Badirudi, zenbat
eta goitiago igo, orduan eta bere
baitanago eta lurrez hustuago gel-
ditzen dela gizonaren gogoa, arima.

Felix gaisorik dago
eta nahikoa egin du gizajoak
bere gorputza goi mailaraino igo-
tzearekin
Ezin du ez jan, ez edan, ez lo
egin,
baina bai gonbitoka.

Zer ekartzen du gogora pasarte
horrek? Niri Peter Sloterdijk-en
Munduarekiko Arrotzaldia liburuko
«Nora doaz monjeak?» izeneko ata-
la. Irakur beza gizon modernoaren
Himalayarako joera ulertu nahi
duenak. Handik atereak baititut
ondoko iritzirik bihurrienak.

Kangchenjunga izenak Tibetan
du jatorria,
«Elur Handiaren Bost Altxorrak»
esanahi du
eta tamangez «Bost Jainkosen
Mendia».
Kike, Juanito, Felix eta Alberto
lau erromes bost jainkosarentzat

Ez dago inora ihes egiterik, «gi-
zon-jainko-mundu» hirukoa, «gi-
zon-jainko» bikora agertu gabe.
Gure ihesleku mitiko guziak: de-
sertu, goimendi, bakarleku edo de-
na delako, ezin litezke mundua
ukatzen digun «jainko» baizik izan.

Kangchenjunga gutxi bisitaturiko
mendia da
ez baita atsegina, eta bai neka-
garria.

Saio huts honek leher eginda utzi
gaitu
baina jainkosak erakarri egiten
gaitu
Hauxe du bere jokoa, seduktora
halakoak!

Santuen bertutea, desertua de-
sapioa hartzea da; eta desertua-
ren bertutea, berriz, desesperazio
santua sortzeko hainako ezintasua
erakustea, gizon santuak bere
jainkotze bide temosoan segi de-
zan. Eta desertuak (elurrezkoak
barren) deitu egiten du gizona, me-
tafora arketipikoa burutzeraz, uste
izanez, bere arimak, han, nonbaite-
an, urrutiko bakardadean, gorpu-
tza menderatu lezakela zigorrez eta
martirioz, edozein jainkotze ames-
turen alde, lurra gaitzetsiz zerura-
tze bidean.

Pioletarekin elur joka hasti nin-
tzen
-Non hago? Non hago?
Hiru ziren eta nik lau zenbatu
nahi nituen.
Harri bat bilatu nuen eseritzeko
eta negarrari eman nion.

Bai, deserturako ihesean, edo
nahinorakoan, inoiz egin duen ne-
garrik zurienean egin du gizonak.
Malkoen doairik gabe, atleta (=as-
zeta) hauetako inork ezin uki jain-
koari orpoa. Otoitzarekin batera
malkoek urtu diote gizonari mun-
dua hankapean, arima jainkoaga-
na agortu ahalean. Otoitza eta
malkoa gauza bera bihurtu badira,
ihes bila dabilan gizonak ez du
jainkopuska izan nahia beste mi-
nik.

Elur birjinerainoko egologiaz (sic)
eta aberrikeriaz haratagoko bi-
dalan
gorago nahi genuen, gailurrerai-
no
ezker aldera munduaren erdia
genuela
eta eskuin aldera beste erdia.

Burgesia eta poesia beti erdian.
Bai, badu zer bait izpiritu burgesak,
Afrikako desertura edo Himalayara
eragiten gaituena. Eta ezustean ai,
inurritegia izaki, egoismo burgesa-
ren metaforarik zaharrena. Eta hai-
zea gorri dabilenez, ikurrinak otoitz
egiten du gailur zuri hutsan.

Ziria

• Motxorrosolo •

Hamaika


HAMAIIKA TALDE ABIAN JARTZEKO SORTUAK. HAMAIIKA BIDER
esanda ere entelegatuko ez dutenen erresuma dugu bi-
zitoki. Hamaika estakuru, zein baino zein gaitzagoak, gaindi-
tuta ere, hamaikagarrenez errazena gainditzeke. Hamaika
urte igaro, eta hamaika igarotzeko prest. Hamaika.

losu Osteriz

Idazlea

«Historiak ez dio justiziarik egin EAE alderdiari»

losu Osteriz ekonomialari iruindarrak 'Mi tío y sus batallas' liburua kaleratu berri du. Argitalpenak Espainiako Gerra Zibilagatik erbestera joan eta handik itzulitako Eusko Abertzaleen Ekintzako militante baten ibilerak kontatu ditu (EAE). Bidenabar, gogoeta politikoa egin du, eta orduko Iruñeko giroa ere irudikatu du.



MIKEL SAIZ

Iruñeko Komediak kaleko bulegoan hartu gaitu. Luze ari-tu da liburuaz. Dena den, EAE-ko militante ohia izanik, egungo egoera politikoa ere izan du mintzagai.

■ **'Mi tío y sus batallas' argitaratu berri duzu. Zer kontatu duzu?**

Liburuak Espainiako Gerra Zibilean parte hartzen duen eta gero erbestera joaten den osaba baten abenturak biltzen ditu. Jaioterrira, Nafarroara, bueltatzean erbestean zein hemen geratu diren lagunen oroitzapenak gogoratzen ditu. Bere solasaldietan iraganean gertatutakoak aritzen da; erbesteko istorioak kontatzen ditu, erresistentzian izandako lagunak.

■ **Protagonista Eusko Abertzaleen Ekintza (EAE) alderdiko partaidea da. Zure ustez ahaztutako alderdi batekoa.**

Historiak ez dio justiziarik egin. Ez zitzaion justiziarik egin aldatzen ari zen gizarte batean, II Errepublikan gertatzen ari zena giro aproposa zen horrelako mugimenduak garatzeko, EAE izan zelako euskal ezker bat sortzeko saiiorik arrakastatsuena. Alderdi laiko, sozialista eta errepublikano moduan definitu zen; eta 'Jaungoikoa eta lege zaharra-

ren' pean ez zegoen nazionalismoa ordezkatu zuen.

■ **Liburuko protagonista 36ko Espainiako Gerra Zibilaren eta erbestetik buelta egin arteko tartean kokatu duzu. Protagonista garai hura bizi izan zuen edozein euskaldun izan daiteke?**

Bai. 36ko Gerran borrokatu ziren hainbat lagunen historia da. Lehenik Euskadi defendatu zuten, eta gero Errepublika defendatzen jarraitu zuten Iberiar eta Europako fronteetan. Munduan zehar ibilitako euskal herritar guztiak doaz osabaren solasaldira.

■ **Gogoeta politikoa eta ideologiak ere egin dituzu baina, betiere, zure inguruan uztartuz.**

Bai. Hemen kokatua dago. Solasaldiek ere ez dute serioegiak izan behar. EAE zerbaite-tan nabaritu izan bada da mahai batean guztiaz mintzatu dela eta zenbat buru hainbat aburu izan dituela. Dena den, ez da sermoi bat. Gaiak ateratzen doaz, eta Ameriketara eta

Europar barna ibili direnen oroitzapenak solasaldian ateratzen doaz, baso-erdi baten inguruan ari balira bezala. EAE alderdi barojiarra izan zen. Barojarrak orokorrean ez dira izan ez euskararen, ez errepu-

blikaren, ez eta komunismo edo sozialismoaren kordakoak, baina Euskal Herriaren zati bat bildu dute. Dena den, horrek isla gutxi izan du gizartean, EAE alderdiak lau batailoi eta ministro bat izan zituelako II Errepublikan. Frankoren diktaduraren ondoren bere ordezkaritza oso urria izan da. Egia da beste ezkerreko mugimendu batzuk ateratzeak eta hori ona da.

■ **Iruindarra izanik, liburuak hiriburuan kokatu duzu. Orduko Iruñeak eta gaurkoak alde handiak dituzte?**

Hiria aldatu da gu aldatu garen bezala. Gerrako garaian egoera jasanezina zen, eta Nafarroa altxamenduaren guneetako bat izan zen. Dena den, Nafarroako gizartea anitzagoa bilakatu da. Arma hartu zituen eskuin mutur hark ez du orain hainbeste-ko pisurik. Oraindik geratzen da zati kontserbadore eta atzerakoi bat, baina, hala ere, ez da gehiengo, izan daiteke gutxiengo handiena, baina Nafarroa hori baino anitzagoa da.

■ **Ohitura pasarteaz atondutako liburua ere bada, ezta?**

Liburuak ez ditu nahi horiek guztiak, ohitura biltzailea izan daiteke garai bateko Iruñea eta orduko pertsonaia bitxiak aipatzen direlako.

■ **Zein pertsonaia jaso dituzu?**

Asko daude, baina begiko izan dut Luis Tierno, Pantierno deitzen zutena. Bazterreko gizona zirudien, baina jantzia eta azkarra zen, eta bere erara bizi zen, modu akrata batean. Eus-

soslaia

losu Osteriz Iruñean jaio zen, Alde Zaharreko San Frantzisko plaza ondoan. Ekonomialaria da, eta Ekonomia aholkularitzarako bulego batean egiten du behar. Beraz, idaztea ofizioa baino gehiago afizioa du. Solasaldiak gustuko dituenek, astero Iruñeko Radio España irrati kateko mahai-inguru batean egunerokoaz aritzen da, beste gonbidatu batzuekin batera. Lana falta ez badu ere, alabarekin egoteko beta ere izaten du.

Orain politika atakaren bestealdetik jarraitzen duen arren, EHE ordezkatu zuen Iruñeko Udalean. Parlamentario ere izan zen Euskadiko Ezkerra alderdiarekin, baina hark hartu zuen bidearekin ados egon ez, eta militantzia politikorik gabe geratu zen. Egun, alderdirik gabe, dogmatismoetatik at dago eta kritikoa izaten jarraitzen du.

Politika alde batera utzia badu ere, bake prozesuaz mintzatu da. «Bake prozesuarekin denak ados gaude. Eraso bortitza sofritzen ari da Estatuko boterearen zein Madrilgo komunikabideen aldetik. Uste dut pausoak ematen ari direla eta zuhurki baikorra naiz. Euskal Herria ordezkatzen duen gizarte zati honek adierazteko bide bat aurki dezala nahi nuke. Baztertuak izaten jarraitzen dugu gure lurrean, eta ez da Nafarroako aniztasuna errespetatzen», dio. «Dena den, guztiok hauteskundeetan zain gaude».

kal Jai eta Mañuetako frontoi- zurrumbiloan ere baziren beste batzuk. Mañuetako Felipe, pilotari trebea; Ojalata, alkoholikoa izan arren, gizon umoretsua eta piperduna zena. Autobus geltokian zama deskargatzen zutenak ere aipa daitezke: Sanguesa, Pitoito... asko dira pertsonaia iruindarrak. Baina 60ko hamarkadan hiria aldatu egin zen. Orduko Iruñeko gau giroa orain baino handiagoa eta bizia- goa zen, eta horrelako pertsonaia- k zeuden. Gaur hori galdu egin da.

■ **Argitaratzen duzun hirugarren liburua da, eta bigarrena bezala zure kabuz kalera- tu duzu. Zergatik?**


Argitaletxeek gutxiengo ale kopurua eskatzen dizute, eta

gaur egungo aurrerapenekin argitalpena neurria egin daiteke, eta aleak falta badira argitara daitezke arazorik gabe. Idazteko gogoia asetzeko osatzen ditut liburuak, eta lagunei emateko, batik bat. Dena den, salgai dau- de Iruñeko liburu dendetan.

■ **Zein izanen da hurrengo li- burua?**

Ez dakit. Badut material uga- ri erbesteko eta klandestinitate- ko prentsaren inguruan. Diktad- ura 40 urtez luzatu zen, eta le- henago zeuden buruak ezin izan zuten etorri, eta itzuli zire- nak oso zahartuak zeuden eta berehala hil egin ziren. Horrek belaunaldi zein gizarte apurke- ta esan nahi du.

→ Irene Arrizurieta



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Argazkia mezua da

Mcluhanek errana bagenekien hedabidea dela mezua, eta esperientziak erakutsia frogatzen ari gara hitza, mundu honetan noizbait indarrik izan badu, eragina galtzen ari dela irudiaren mesedetan. Egunkari batean lanean aritu den edozeinek badaki, halaber, titularra testua bezain garrantzitsua dela, eta, bestalde, ez genduke aiantzi behar argazkien bidez ere mezua bidaltzen direla.

Lehenengo egunean euskara bultzatzea helburu duen fundazio berria aurkeztu zuten. Egunkarietan irakurri nuen, mezua nagusia hauxe da: euskara nafar guztion da, politikaria guztien gaitetik jarri behar dugu, nafar guztiok batzen gaituen ondarea da...

Ederrak hitzak eta txalogarria fundazioa martxan jartzeko asmoa. Baina, kontuz, gogoratu gaur egungo bizimodua dela medio, batzuek periodikua irakurri beharrean ikusi egiten dutela: titularrak eta argazkiak. Eta argazkia ere mezua izan daitekeela edo mezua argazkia. Euskararen fundazioa. Bost lagun argazkian eta bat izan ezik, gainerakoak politiko aberzale edo hauteskundeetan zerrenda abertzaleetan agertutakoak. Euskara politikaria guztien gaitetik, nafar guztiok batzen gaituena. Horixe baietz.

Bada marketing izeneko ikasgai bat, gaur egungo gizartean sekulako garrantzia hartu duena. Euskalgintzan ari diren talde batzuek ongi ikasia dutela frogatu digute azken hilabeteetan. Bertze batzuek, ordea, ikastaro trinkoak beharko lituzkete.

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Donegal tabernan 70eko eta 80ko hamarkadetakako disko musika emanaldia izanen da, 24:00etan. Datorren ostegunean, berri, kontzertua eskainiko du Atico 69 taldeak, 21:00etan.
- **Doneztebe:** Amparanoia taldearen kontzertua izanen da gaur Bortatxon, 23:00etan. Sarrera 1.500 pezetan da; aurretik erosiz gero, 1.300 pezetan.
- **Burlata:** Leihotikan taldearen emanaldia izanen da datorren asteartean Black Rose tabernan, 20:30etan.
- **Iruñea:** Iruñeko Ganbera Abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar 20:00etan Gaiarre antzokian.
- **Iruñea:** Ainhua Artetak kontzertua eskainiko du etzidamu Gaiarre antzokian 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Lekunberri:** Karlos Baldaren lanak ikusteko aukera dago Mitxausenea Kultur Etxean, heldu den apirilaren 11 arte.
- **Zizur Nagusia:** F. Javier Redinen margoak ikus daitezke Kultur Etxean, apirilaren 18ra arte. Lanegunetan 19:00etatik 21:00etara dago zabalik, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** AEK-k, Basajaun Iruñezar euskaltegiko irakasle zenna omentzeko helburuarekin, ipuin lehiaketa antolatu du. Gaia edozein izan daiteke, eta idatzia 5-10 orrialde bitartekoa behar du izan. Lanak Iruñezar euskaltegira igorri behar dira; Errekoletak kalea 16, Iruñea, Nafarroa, K. P. 31001.
- **Bertiz:** Bertizko Turismo Partzuergoak 99ko Bidasoako

Jaialdiak iragarriko dituen kartel lehiaketa antolatu du. Kartelak maiatzaren 15a baino lehen igorri behar dira Bertizko Partzuergora: Oiergi 31720- Bertizarana. Informazio gehiago nahi duenak dei dezala 948-59-23-23 telefonora.

► **Iruñea:** Donibane Elkartek II. Mendi Jardunaldiak antolatu ditu datorren asterako.

Heldu den asteartean Satorrak espeleologia taldeak *Agobios subterráneos* diapositiba emanaldia eskainiko du. Hurrengo egunean Iñaki Aldaiak Afganistanera egin-dako bidaiaren diapositibak pantailaratuko ditu; ostegunean Matias Salazarrek *Tour del Mont Blanc* eskainiko du, eta, ostiralean, Eduardo Orozek *Volcanes de Asia y Latino-*

américa. Ruinas Mayas. Emanaldi guztiak elkartearen egoitzan izanen dira, 20:00etan.

► **Iruñea:** Aste Santuko ospakizunak euskaraz egin nahi dituenak badu aukera. Ostiral Santuan euskarazko elizkizuna 17:30etan izango da, eta Larunbat Santuan Pazko gaubeila, 21:00etan. Elizkizunak Maristen elizan izango dira.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



Os esclavos do fisco.

Haziendaren jopuak.